

Literatura →

Kataluniaren begiak

Alex Gurrutxaga

Antologiek badute izaera polemiko bat *per se*, edozein delarik ere egileak hautatzen duen generoa. Berehala ulertzen da zergatik...». Lourdes Otaegi adituaren hitzak dira (artikula *Erlea*-n). Antologia are polemikoa izaten ohi da literatura garaikideari badagokio, baita norberarena ez den literatura sistema baterako egin izan bada ere, eta are gehiago hautaketa egiteko testutik kanpo dauden irizpideak ezartzen badira, hala nola idazlearen generoa, adina, jatorria, erlijioa edo sistemaren baitan duen kokagunea. Azken batean, zergatik daude batzuk eta ez besteak?

Aritz Galarragak esan du ipuin onak aukeratu dituela; onenen antologia genduke, beraz. Aitoritu du, gainera, behin Quim Monzoren ipuinak hautatuta, ez zaiola erraza egin maila horri eusten dioten lanak aurkitzea —bidena bar, bere hitzaurrea Monzoren 2007ko Frankfurtuko hitzaldi- ipuinaren «bertsioa» da—. Eskertzeko aitortpena da, ausarta ere bai, akaso, Monzoren zentralita-

tea kontuan izanda, eta erakusten du antologoak kalitateari begiratu nahi izan diola nagusiki. Hala ere, ezin ukatu politikoki nahiko zuzena «atera» zaiola: idazle zaharrena 1952koa da eta gazteena 1972koa, bost idazletik bi dira emakumeak eta hiru gizonak, eta denen artean katalanaren lurraren izkina (Seres Aragoiko Saidikoa da sortzez) zein hiriburua irudikatzen dituzte.

Hamalau ipuin dira, ia denak XXI. mendekoak, eta, guztietan ezer nabarmentzekotan, errealeismoa aipatu beharko genuke. Beharbada, Sergi Pamiesen literatura da errealeismoaren kontzeptio ohikoetik gehien urruntzen dena; absurdoa, surrealismoa eta fantasia agertzen dira haren ipuinetan, eta literaturaren ludikotasuna azaleratzen da.

Monzoren ipuinek pertsona bere miserablean erretratatu dute. Oso ongi ikusten da hori ipuinotan: *Gure anaia* (*El meu germà jatorrizkoan*) ipuineko egiantzekotasunaren haustura eta fantasia, *Batzordea*-ko absurdoa, eta *Beneset jauna*-ko tonuaren hoztasuna sakoneko errealeismo kritikorako hiru bide paregabe dira.

Ipuinon atzetik, dezenteko tonu aldaketa dakarte Inma Monsoren: ez hain leherkorak, luzeago eta barnekiagoak dira; bildumari titulua ematen diona nabarmentzen da, minbizia hartzen duena biziminez eta bakardadeaz, beldurraz eta heriotzaz mintzatzeko ardatz gisa.

Empar Moliner eta Francesc Seresen ipuinak izan daitezke errealeismo sozialera gehien hurbiltzen direnak. Seresek periferiariako mundu bat dakarkigu, «jende ohikoa», maila apaleko klasearen bizimodua. Molinerrek,



'HOBE KONTATZEN EZ BADIDAZU'

■ **Apailatzailea:** Aritz Galarraga. ■ **Itzultzailea:** Gerardo Markuleta. ■ **Argitaletxea:** Pasazaite.

berri, tragedia garaikideak birsortzen ditu bere ipuinetan; hala, esaterako, abortuari buruzko *Melodie Nakachian* ipuin gogorren.

Lehendik poesia katalan antologia bat bageneukan, hura ere Gerardo Markuletaren itzulpenekin osatua, eta dagoeneko ezinbestekotzat jo genezakeena. Denbora beharko dugu —literaturak iraupen (pittin bat) luzeagoa baitu hedabideen aurrak eskaintzen duen istanta baino— egiazatzeko antologia honen errepresentazioa zenbateraino den zehatza egungo ipuingintza katalanari dagokionez.

Antologoak kalitatea bilatu du eta, inondik ere, ipuinok badute. Inork esango du balio estetiko subjektiboa (ere) badela, eta hala da, baina Otaegik dioena ere egia da: «Literaturazale guztiok dakigu testuen kalitatea eztabaidagarria izan daitekeela, eta hautatzen duenaren begietan dagoen irizpide kritikorearen arabera edertasuna duela. Baina badakigu gisa berean antologoa nekez errazten dela funtsezkoan, eta ez dela gehiegi aldentzen bere garai-ko balorazioetatik».



'ZAMORAKO LANDAN'

■ **Egilea:** Jon Etxabe. ■ **Argitaratzailea:** Intxorta 1937 Kultur Elkarte.

Jon Etxabek (Elgoibar, 1933) 70eko hamarkadan Zamorako (Espainia) kartzelan preso eman zituen zazpi urteetako oroitzapenak berriitu ditu liburu honetan. Kartzela «filosofia ororen gairidiko errealtate gordina» eta «lotura eta ezin guztien paradigma» dela dio egileak liburuaren hasieran.



'EUSKAL PROSA AZTERTUZ. KRITIKO BERRI AHOTSAK II'

■ **Koordinatzailea:** Jon Kortazar. ■ **Laguntzailea:** Eunate Gurrutxaga. ■ **Argitaratzailea:** EHU.

Hiru ipuin bilduma aztertu dituzte EHUKo zenbait ikaslek lan honetan: Iban Zalduren *Etokizuna* (Erein, 2005), Uxue Alberdiren *Aulki bat elurretan* (Elkar, 2007) eta Ur Apalategiren *Fikzioaren izterrak* (Susa, 2010).



'ANDER LIPUSEN ANTZERKIGINTZA: ERRITUA, KULTURA ETA IKUSKIZUNA'

■ **Egilea:** Jaime Valverde. ■ **Argitaratzailea:** Arabako Foru Aldundia.

Arabako Foru Aldundiak antologia historikoaren beharrik ohi-ko parametroetatik irtenarazten du. Gure erabakia da euren ondoren jarzte, baina ez ezazue haurra gerraren aurrean bakarrik utzi, arren.

↓ Haur eta gazte literatura

Izenik gabe, itzalak sortzen dira

Imanol Mercero

Euskarazko album ilustratuei urtero banatzen zaien Etxepare sariaren zaspigarraren Leire Bilbao (Ondarroa, Bizkaia, 1978) idazleak eta Maite Mutuberrria (Eltzaburu, Nafarroa, 1985) ilustratzaileak eskuratu zuten, Durangoko bonbardaketari buruzko obra urragarri honen.

Dituen 36 orrialdeetan, Gerra eta gerrak eragiten duen samina hitz egiten zaigu, bai narrazio lehor eta hainbatetan sinboliko den testuarekin, bai garaiko argazkiez baliatzen den ordenagailu bidezko ilustrazioarekin ere.

Kontakizuna 1937ko martxoan gertatzen da, eta bonbardaketaren aurreko egunak eta bonbardaketa eguna bera hartzen ditu, fokua herritar zibilengan jarrita, neskatu baten bizipenen bidez.

Idatzizko elementu guztiak, izenburutik hasi (*Gerrak ez du izenik*) eta narrazioaren muinera, protagonistaren amamaren ahotik irteerako «izenak izana

na dakar» esaeraren hausnarketatik eratorritzen dira. Amonaren baieztapena gerrak sortzen dituen kalamitateei aurre egiteko bitarteko gisara aurkezten da, zein eta «Tristura ez badugu izendatzen, ez gara triste egongo...», edota «Gosea ez badugu izendatzen, ez dugu goserik izango, inurri tropel bat baino ez, dantzan, gure sabelean». Agian, horixe da protagonista mutututa ibiltzearen arrazoiak, aspaldiko hilabeteetan ez baitu hitzik esan; agian, horregatik, Durangoko herritarrek mututuz joango dira gerrak aurrera egin ahala... Baina, azkeneko aitortuko zaigu ezarritako hitzak ezin direla ezabatu: «Beldurra, samina, gerra... ikusten hasi da. Gris eta gordin. Amamak esan bezala, izenak izana ekarri du Mirentxuren begietara».

Mirentxurekin egindako hau-tuaren aurka, ematen du anonimotasunak indarra emango liokeela testuak aldarrikatzen duen mezuari, bereziki gerra-xedea herritar zibila denean, Durangokoan izan zen bezala.

Hausnarketa horren aldeko da, nire ustez, ilustratzaileak Gerediaga elkarteari esker eskuratu-tako argazkiekin garatu duen lana. Azalak berak —zazpi haur anonimoren argazkia— erakusten digujendarte anonimoaren irudiaren beharra gerrak esan nahi duen hilketa kolektiboaren ideia azaltzeko. Berdin gertatzen da 12-13. orrialdeetako argazkia-ekin: dozena bat lagun gerritik behera, erdigune baten inguru-



'GERRAK EZ DU IZENIK'

■ **Idazlea:** Leire Bilbao. ■ **Ilustratzailea:** Maite Mutuberrria. ■ **Argitaletxea:** Pamiela.

ruan. Horra herritarrek euren plazan, horra biktimak.

Are gordinagoa da ankerkeria airez hartutako argazkietan. Hor jada ez dago nabardurarako tartetik, helduak zein gazteak, titikoak zein agureak, teitatupe horietan dagoen edonor da gerra-xede.

Argazki horiekin batera, marraztuta ageri dira protagonista, Mirentxu, haren amama eta ama. Haiekin, haur-marrakitxo batzuk, eta mordoxka bat inurri, kilker eta intsektu, belar sorta batzuk, eta arbolaren bat... Haizea, giro itogarri honetan.

Orain arte esandakoak agerian uzten du haurrentzako izendatutako literaturak dituen mugak. Nekez eskain liteke album hau haur bati, duen adina duela, heldu baten bitartekaritza lanik gabe.

Obra honen gaiak eta zehaztasun historikoaren beharrik ohi-ko parametroetatik irtenarazten du. Gure erabakia da euren ondoren jarzte, baina ez ezazue haurra gerraren aurrean bakarrik utzi, arren.